

“SARIA ONDO DATORKIGU, BALIABIDEAK ESKASAK BAITIRA NORMALEAN”.



Elgoibar Ikastola | M. Kruz Intxausti | Bostekoakc | Lehen Hezkuntza 2

Elgoibar Ikastolako Bostekoakc taldeak irabazi du Lehen Hezkuntza 2 kategoria. M. Kruz Intxausti arduradunak honela dio aurtengo edizioaren inguruan.

Ikastetxe bereko bi talderen arteko lehia estuak motibazio berezia eragin du?

Bai, giro polita sortu da mailakideen artean.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Interes baikorra mantendu dute eta bukaera aldera gehituz joan dela iruditzen zait, batez ere oso motibaturik zeudelako Kursaleko jaialdira joateko.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Niri osagarria iruditzen zait, aukera ematen dielako, ikasitako zenbait trebezia, teknologia eta eduki praktikatzeko eta hobetzeko.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Sariak beti motibatzen du, baina badakite denentzako ez dagoela eta besteek ere lan onak egin ditzaketela eta onartzen dute.

Eta irakasleak? Baita ere. ***Ikastetxea?*** ongi etortzen zaizkigu, baliabideak urriak izaten direlako gehienetan.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Lan desberdinak, hau da hiru faseetakoak, bukatutzat emanda ikusi ditugunean, gustura sentitu gara eta puntuazioak ere aitortu digute. Bideoa grabatzea ere gustuko dugu. Kursaleko emanaldia ere asko gustatu zitzaigun.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Gaia aukeratzean, gidoiaren enfokea egitean eta grabatutako zatiak kentzean batipat.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Gure ikastolan sei urtetan (lehenbizikoan ez) parte hartu dugu eta jadanik, zenbait kurtsotan eginkizun bat gehiago bezala planteatzen da eta horrek segurtasun handia ematen die ikasleei.

Eta irakasleei?

Maila txikietan, lan handia eskatzen du, ikasleei eskatzen zaiena ongi adierazten eta gero ekarpen guztiei forma eta lotura ematen.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai, nola ez ba?

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Bai, nire ustez, simulatzaileari etekin gehiago atera beharko litzaioke. Fase desberdinak gainditzea litzateke, azken helburura heldu al izateko. Hala ere, mugatu gabe behin bakarrik egitera, baizik eta etapak gainditzera bultzatuz. Ekintzaletasuna sustatuko luke era honetan.